

Nafarroako egoera demolinguistikoa

Iñaki Larrañaga

Norbaitek berriki esana du, 1986. urteko datuak argitara eman arte Nafarroako egoera demolinguistikoaz itsumustuan eta handik eta hemendik daturen bat edo beste ezagutzearekin konformatu behar izan duela denbora luzean. Esaldi hori ez da nire ustez guztiz sinesgarria. Ia-ia esan beharko litzateke, Errolda bidez ez bada ere, Nafarroan beste zenbait euskal lurraldetan baino ikerketa gehiago egin dela euskararen atzerakadaren konstatazioak egiteko izan ez bada ere. Horren lekuko lirateke, azken 20 urteotan, lehenago egindakoak ahortzi gabe, egin diren hainbat ikerketa.

Hitzaldi-artikulu honetan bi puntu hauek aztertzen ahaleginduko gara hain zuzen ere: alde batetik, azken 20 urteotan egin diren ikerketa soziolinguistikoaren emaitzen azterketa, eta beste aldetik, 1986. urteko Erroldak, aurreko ikerketa horiekiko zer berririk eman duen, ezer berririk eman baldin badu, konparaketa egitea.